

## Taxi zerbitzua, eguneko 24 ordutan

■ Udaltzainek emango dute guardiako taxistaren telefonoa, geltokian gidaririk ez dagoen ordutan ■ Telefonoak: Taxiak 943 550093; Udaltzaingoa 943 333288.

UDALA eta taxistak akordio batera iritsi dira: hemendik aurrera 24 ordutan izango dugu Hernanin taxian ibiltzeko aukera. Orain artean asteburuetan ez zen arazorik izaten, baina, astez baziren taxirik gabeko orduak, iluntzean-eta. Larrialdiren bat gertatu ezker, motz geratzeko bidea.

Hemezortzi dira herrian lan

egiten duten taxi gidariak. Geltokian inor ez dagoenerako guardiako egutegia egin dute orain. Taxi geltokian deitu (943 550093) eta inor ez dagoenean, munizipal eman-go dute (943 333288) guardiako taxistaren telefonoa.

### TARIFA BERRIAK

Oraintsu onartu dituzte taxi

tarifa berriak Hernanin, baina, oraindik indarrean jartzeko daude.

**Egunez:** Ateratzea 388 pta (2,33 euro). Kilometroko 121 pta (0,73 euro). Itxaroten den orduko 2.330 pta (14 euro).

**Gauetz:** Ateratzea 388 pta (2,33 euro). Kilometroko 195 pta (1,17 euro). Itxaroten den orduko 3.661 pta (22 euro). □

## UDAL AURREKONTUA

### 2002-ko Udal inbertsioak eztabaidatzeko bilera asteazkenean

■ 19:30etan da udaletxeko pleno aretoan ■ Herritarren proposamenak Udaltzaingoa daude eskura.

UDALETXEKO Gobernu taldea herritarrekin bilerak egiten ari da 2002ko inbertsioak erabakitzeko. Orain artean bi egin dira: aurrenekoan gobernu taldeak bere inbertsio proposamena eraman zuen; eta, bigarrean,

herritarren proposamenak etorri ziren. Orain denak batera eztabaidatuko dira urtarri-laren 2an egingo den bileran. Arratsaldeko 19:00etan da. Herritarren proposamenak eza-gutu nahi dituenak udaltzain-goak dauzka eskura. □

## Berritu dituzte Elorrabi eta Txurianeko zubiak

■ Zubi berriek barandila dute eta azpian aurreko zubien oholak.



Elorrabiko zubia berritua.



Txurianeko zubia berritua.

ELORRABI eta Txurianeko zubiak berritu dituzte, eta berriz ere Urumea pasatzeko moduan daude. Udalak zubi zaharrak bota eta berriak egitea onartu zuen. Zubiak berritzeko proiektuak zioenez, zubi zaha-

rraren egitura dezente hondatua zegoen, batez ere burnia herdoiak jana zegoelako, eta kableak dezente *ikutuak* zeuden. Hala seguritate ere ez zen erabatekoa. Zubiak bi hilabeteotan berritu dituzte.

Elorrabikoa aurrea eta Txurianekoa bukatu berri dute. Zubiari eusten dioten kableak eta euskarriak aldatu, eta barandila jarri diote. Hondoko egurra bera, ordea, ona zegoen eta lehengo bera jarri dute. □

## FUTBOLA

### Hernani-Urola gaur, Zubipen

■ Hernaniarrak 10garren daude sailkapenean eta ondo jokatzeko ari dira ■ Gaur, 16:30etan.

CD HERNANI-k Urolaren kontra jokatu du urteko azken partidua. Hernanik oso boldada ona daramaki eta Ligako haundiei hortzak erakutsi dizkie. 25 puntu ditu eta lehenengo postutik 12ra dago. Baina, 4garrenetik 6 puntura eta ratxa onean dago. Talde goleatzailea da zuri berdea. Gol gehiena sartu dituen hiru-garrena ekipoa da, 20tik: 32

gol sartu ditu 17 partidutan.

Urola 18garren dago, baina, futbolearen ez da izaten partidua errazik. Irabazita, 9garren jarriko da, Bergarak galtzen badu; eta gainera haundienekin *borrokan* hasteko moduan.

### SELEKZIOAN

Estatuko selekzio autonomikoaren arteko txapelketa jokatzeko ari da, 15 eta 17 urtez azpikoetan. Hor CD Hernaniko hiru jokalariek daude: Axel Azpiolea, Beñat Olazabal eta Ander Urdangarin. □

## 'BERTSOLATA'

### Bertso jaialdia

■ AURTENGO Bertsolatako ekitaldi nagusia gaur da kiroldegiko frontoian. Txapelketa Nagusiko sei finalista arituko dira kantuan: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Sustrai Colina, Unai Iturriaga eta Igor Elortza. Gaur, arratsaldeko 18:30etan.

Bihar, bestalde, bertsoak eta pelota elkartuko dituzte Hernaniko pelotari eta bertsolariak. Eguerdiko 12:00etan, Tilosetan. □

**Poltsak, lepokoak, lurrinak...**

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON HERNANIAR GUZTIOI**

URDIN Osagarri Denda  
Montebideo kalea 1  
(EPO eta atletismo pista artean)  
- HERNANI -

### Antziola-Motor

Zorionak eta urte berri on!

**Antziola-Motor**

- ▶ Kotxe berri eta aukerako salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

**Ikusi al duzu Mondeo berria?**

**Antziola Motorren ikusi eta probatu egin dezakezu.**

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

### Telemar

ITXASTELE S.L. Telyco denda  
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

**Honako eskeintza hauek dauzka zuretzat:**

- mobila**: SIMENS M35i 9.900 pta kontratuarekin.
- mobila**: PACK ACTIVA 14.900 pta (Telefono guztietan 8.000 pta deietan)

### MoviStar Activa

Hartu eta hitzegin

Hartu eta hitzegin

### Xenon Telemar

Hernani

ORDENAGAILUETAN ESKEINTZAK

**AMD XP 1500**  
80 GBko diskoa,  
512 MBko memoria,  
17"ko monitorea..

**166.386 pta + %16 a Bez.**  
Beste hainbat ordenagailu  
49.900 ptatik . 3 urteko garantia.

## 'Bidezko merkataritza' denda, Tilosetan

■ Ezta, kakaoa, txokolatea, rona eta arropak eta abar daude ■ Parrokiko misio taldeak eta gazteek jarri dute ■ Gaur eta bihar zabalik, goiz eta arratsalde.



Bidezko merkataritzako produktuak ikusten.

ELIZAKO Urrats misio taldeak eta gazteek 'Komertzio justua' edo 'Bidezko merkataritza' deitzen den denda jarri dute Tilosetan (lehen tonbola zegoeneko hartan). Munduko desoreka ekomikoa salatu eta interkanbio justuan oinarritutako sistema ekomonikoa defendatzen dute. Interkanbio

justu horren lekuko, Hernanin salgai jarri dituzten produktuak. Zuzen zean produktoreei erosiak dira, eta prezio duhinean ordaindutakoak, misio taldeko kidearen hitzetan. Dendak badaramazki egun batzuk zabalik eta igande arte egongo da. Goizetan 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara. Igandetik aurrera produktuak Bidezko merkataritzako denda batean erosi nahi duenak Donostian du bat, Juan de Bilbao kalean.

Misio taldeak lehen ere antzeko laguntza ekimenak egin izan ditu: 3 urtetan Afrika eta Ameriketako artisau produktuak jarri zituen Biterin. □

## PELOTA

### Hernani-Añorga, desafioa

■ Eskuz binaka da eta hiru partiduetara jokatu dute ■ Igandean, 16:30etan, kiroldegian.

HERNANI eta Añorgako pelota klubek lagunarteko desafioa jokatu dute igandean. Formula Herri Arteko Txapelketako bera izango da: hiru partidu, kategoriatan bakoitzeko bat; kadeteetan, jubenetan eta nagusietan.

Kadeteetan, Arrieta-Gurrutxagak Iruretagoiena-Rekalde izango dituzte kontrario. Jubenetan, Alvarez eta San Sebastianek Gonzalez eta Apeztearean kontra jokatu dute. Hernaniko bikotean Yubero zen jokatzekoa, baina, lesio txiki bat medio seguruenaz ezin izango du jokatu. Nagusietan, berriz, Erroizeneak eta

Mendizabalek Zabala eta Argoterren kontra. Bi partidu irabazten dituenak eramango du desafioa.

#### GAUZAK ESTU

Hernaniarra talde gogorra da, eta pelotariak txapelketetan oso maila ona eman dute; baita torneo asko irabazi ere: Getariko, Antiguakoa eta abar.

Baina, añorgarrak ere ez dira edozein: Rekaldek adibidez oraintsu jokatu du Gipuzkoako finala. Gonzalez eta Argote ere final garrantzitsuak jokatu dazoz. Partiduak 16:30etan hasiko dira eta ez da ikuskizunik faltako. □

## IGERIKETA

### Gabonetako Saria gaur

KIROL Elkarteak antolatuta VII Gabonetako Saria jokatu da gaur, kiroldegiko igerilekuan. Sariaren helburua da, batez ere, igeriketa eskolarra bultzatu eta indartzea.

Goizeko 09:00etan hasita, 270 igerilari inguru izango dira kiroldegian, 25-30 hernaniarrak. 100 metroko 5 proba izango dituzte tximeletan, bizkar, bular, librean eta lau estilotan.

Bestalde, Ordizian Nazioarteko igeriketa Saria jokatu da, gaur. Iara Jimenez hernaniarra han izango da, eskatzen diren marka mini-moak eginak ditu-eta. □

## Ereñotzuko 'kanala' jela-tuta



Ereñotzuko kanala jela-tuta egonda ia astebetean.

AZKENENGO hotzaldi horiek Hernanin ere utzi dute berea. Zero azpiko zenbakiak baino harrigarriagoak ikusitako irudiak dira. Ereñotzun zentralera ura daramakien kanala izoztu egin da -oraindik ere erabat joateko dago-. Eta jela dezentea egin zitzaion gainera: jendeak harrizarrak, estakak eta abar bota, eta

ez puskatze adinakoa. Bazterrarri eutsita oinez ibili denik ere ba omen da.

Elorrabiko presan ere urak korriente txikia du. Osiñagako auzotar batek esan digunez errioa bazterretatik erdialdera piskana izozten joan eta goiz batean izotz kapa fina eginda azaldu omen zen. Giro izango zen han! □

## Loteria kobratzera

■ GORDOA ez, baina, loteria pizarra tokatu da Hernanin ere. Doberako loteria, Jubilatuen Egoitzakoa eta Sagardoaren Kofradiakoa erosi zutenek behintzat zerbait jasoko dute. Doberakoa 12 euro dira partizipazio bakoitzeko eta urtarilaren 2tik aurrera pasa behar da kobratzera. Doberak, ahal dela, lehenengo bi asteetan joatea eskertuko luke.

Jubilatu Egoitzako loteria dutenek Caixan kobratuko dute, urtarilaren 7tik aurrera. Astelehenetik ostiralera goizez eta ostegunearrantsaldez ere bai. Saria: 15 euro boletoko.

Sagardoaren Kofradiko loteria erosi zutenek, berriz, ESNal ajeztzian eta Jaione konjelatueta kobratuko dute. 400 pta da boletoko. Dagoeneko kobratu liteke. □

## ZAHARREN EGOITZA

### 'Ezein' taldearen kontzertua gaur

■ Ongintzak zenbait ekitaldi antolatu ditu Sandiuserrin, Gabon jaietarako. Gaur musika kontzertua izango da: EZEIN taldea arratsaldeko 17:30etan hasita.

## BERRIAK ELKARTEA

### Sarien zozketa gaur egingo da

■ Berriak 74.000 boleto banatu ditu Hernanin, bete eta dendetan uzteko. Irabazleak gaur aukeratu dituzte, 13:30etan plazan.

## TXANTXANGORRI

### San Silvestreko tirada, bihar

■ Plater tiraketa mini foso modalitatean izango da, 15 platarara. Izena ematea 11:00etatik 12:00etara.

## KIROLAK - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	MAHAI TENISA	TALDEAK	NON	NOIZ
Gorengo maila	Hernani-Urola	Zubipe	Gaur .16:30	Alebinak	Euskadiko Txapelketa	Aieten	Gaur, bihar
ERRUGBIA	TALDEAK	NON	NOIZ	Infantilak	Euskadiko Txapelketa	Aieten	Gaur, bihar
Gipuzkoako Liga	Ordizia-Hernani	Ordizian	Gaur. 11:00	Jubenilak	Euskadiko Txapelketa	Aieten	Gaur, bihar

PELOTA	BIKOTEAK	BIKOTEAK	NON	NOIZ
Eskuz binaka kadeteak	Arrieta-Gurrutxaga	Iruretagoiena-Rekalde	Kiroldegian	Bihar. 16:30
Eskuz Binaka jubenetan	Alvarez-San Sebastian	Gonzalez-Apezteare	Kiroldegian	Bihar. 16:30
Eskuz Binaka nagusiak	Erroizenea-Mendizabal	Zabala-Argote	Kiroldegian	Bihar. 16:30

**Hernaniko Kronika**  
interneten  
[www.hkronika.com](http://www.hkronika.com)

BADATZOZ ERREGEAK, BADATZOZ

**Trimelota**  
Txikiak - Rogalok

ZATOK TXIMELETARA ZURE OPARIAK AUKERATZERA  
Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI

Zorionak eta ondo izan jai egun hauetan.

**OKINDEGIA**  
**ANTZIOLA**  
Eguneroko ogirik onena!

ANTZIOLA AUZOA, 3  
Tel. 943 55 17 91  
HERNANI

**OIALUME BILTOKIA.**

Zorionak eta urte berri on guztioi!

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia  
19:30etatik aurrera  
OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

**SKODA**  
AUTO

Skoda Fabia Sedan. Egin ezazu amets.

**MENABI**  
Txingurri pas. 26 - Herrera auzoa - DONOSTIA Tel. 943-40 42 43